ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA
TUTORETZA PLANA

BIGARREN HEZKUNTZAKO

3.MAILAKO TUTORETZA PLANA: ***pentsatzen ikasi***.

2012-2013 IKASTURTEA

1.-Tutoretzaren egitura .

1.1.- Tutoretza lantzeko astean behin burutuko dira tutoreen bilkurak. Bilera hauek orientatzaileak koordinatuko ditu eta Ikasketa Burua joan daiteke.

1.2.-Tutoreak, lana ongi garatzeko, taldeko beste irakasleekin harremanetan egon behar du eta irakasle taldearekin betebehar hauexek izanen ditu:

– Ikasle talde bakoitzaren lan arazoak aztertu.

– Aniztasuna lantzeko egin behar diren plangintzak osatu.

– Ebaluazioa bideratzea eta era komunean lana prestatzea.

-- Modu bateratuan landu behar diren gaien programak adostu

– Ebaluazioaren ondorioz hartu beharreko neurriak aztertu, adostu eta praktikan jarri.

Tutoreak edozein unetan dei dezake irakasle-taldea.

1.3.-Ikasleekiko tutoretza saioak.

Astean tutoreak eskola-ordu bat dauka elkarrizketak egiteko eta haien bidez jarraipen lana bideratu ahal izateko.

a) Elkarrizketak

b) Orientatzailearengana ikasle bat bideratu behar dugunean.

c) Jarraipen fitxak. (Ikaslearen erregistroa)

d) Dokumentazioaren trantsizioa

e) Aurreko urteko gainditu gabeko jakintzagaiak (gainditu beharrekoak)

f) Aurre-ebaluazioa

g) Hezkuntza premia berezikoen tutoretza (PT, psikologoa …)

1.4.-Ikasle taldearekin eginen diren tutoretza saioak

DBHn astero eskola-ordu bat egonen da talde-tutoretza egiteko, eta horretarako Lan Plan espezifikoa eginen da. Gero ikusiko dugu.

1.5. Familiekiko harremanak

Gurasoekin harreman baikorrak izatea nahi dugu.

a) Gelako bilerak
b) Bakarkako elkarrizketak
c) Orientazio hitzaldiak

2.-Tutoretza planaren helburu zehatzak

3.1.-**Helburuak**:

– Pertsonen desberdintasunak ezagutu eta errespetatzea. Beste pertsonen iritzia errespetatu eta nork bereak adieraztera bultzatzea.

– Ikasleak bere buruarekiko irudi egokia lor dezan: autoestimua, autonomia... lantzea.

– Aukerako gaiak ongi ezagutu eta aztertzea, hurrengo ikasketen garapena ongi bideratzeko.

- Sexuen arteko desberdintasunak ezagutu eta errespetatzea, jarrera sexistak baztertuz. (¿?)

- Denboraren antolamendua. Ordutegiak eta lana egiteko sistemak erabili, ikasketa errazten duten azturak lor ditzaten. Halaber, denboraren antolaketa hau baliagarria izanen zaigu beren aisia ongi aprobetxa dezaten. Ikas teknikak ezagut, menpera eta erabil ditzaten. Ikas azturak sortu eta garatzeko.

- Ikasleek beren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen has daitezen. Erabaki hauek beren ahalmenak eta interesak kontuan izanda har ditzaten. Erabakiak hartu behar dituzte lehen momentutik; erabaki baten aurrean jartzen ditugunean, beraien heldutasuna eta ahalmenak kontuan hartu behar ditugu. Erabakiz ikasiko dute erabakiak hartzen.

- Hezkuntza sistema ezagutzea.

- Beste pertsonekin harreman onak izatea, baita trebetasun sozialak ere.

- Errealitateari ihes egiteko bideak aztertuz errealitatearekiko kontzientzia landu.

-Trafikoa eta Bide hezkuntzako gaiak aztertu.

3.2.-Helburu hauekin garatu nahi diren **gaitasunak**:

-Hizkuntza-komunikazioarako gaitasuna.

-Gizarte eta hiritar-gaitasuna.

-Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

-Ikasten ikasteko gaitasuna.

3.3.-**Programazioa.Edukiak**

Sarrera : Ikasturte haserako dinamikak. Hiru saio

1.Eduki-multzoa: **Ikas-lan ohiturak hobetzeko egitasmoa**.

Iraila Urria Azaroa.

2 Eduki-multzoa:**Sexu-heziketa egitasmoa. (¿?)**

Abendua/Urtarrila

3 Eduki-multzoa:**Bide-heziketa egitasmoa II.**

Bi saio Otsaila/Martxoa

4.Eduki-multzoa: **"Errealitatetik iheska" (drogomenpekotasuna**)

Sei saio Martxoa/Apirila

5 Eduki-multzoa: **"Nire egoera pertsonala: zer izango naiz?"** programa. Maiatza.

3.- EBALUAZIOA

Ebaluazioa irizpide hauen arabera eginen da:

a)Programazioaren ebaluapena.

- Ebaluazio saioak bloke bakoitzaren bornean kokaturik daude eta tutore bileran egiten dira.
- Puntualki ikasturtearen erdialdean eta amaieran ebaluazio saioak egiten dira, programatutakoaren jarraipena egiteko.
- Antolatutako blokean kanpo-teknikariak egoten direnean galde-sorta banako eta taldekoaren bitartez egiten da ebaluazioa.

b)Planaren ebaluapena.

-Planaren ebaluazio orokorra bi ataletan egin ahal izanen da:

1)Ikasturtean zehar ageri izan diren datuak jasotzen dira eta laburtu.

2)Programaren atal zehatzen ebaluapena: metodologia, antolamendua, materiala, denbora eta edukiak.

-Planaren ebaluazio orokorra bi urtetik behin gauzatzen dugu Irizpide hauek kontutan izaten ditugu:

. Agertzen diren beharrizanak kontutan hartzen ditugu.

. Tutore taldearen espektatibak.

. Inguruari buruzko ikaslegoaren beharrizanak ezezik, ikasle banakoaren egoerari dagozkionak ere kontutan izaten dira.